

2020KO UZTAILAREN 9ko EZ-OHIKO BILKURA

LEKUA: Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

DATA: Bi Mila eta hogeiko uztailaren bederatzian.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Iñaki Ugalde Alustiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Asier Aguirre Murguiondo.
Jule Aranburu Mariezkurrena.
Erkuden Aguirre Arruabarrena.
Aitor de Astobiza Uriarte.
Miren Arantza Oiarbide Perez.
Iñaki Zabalo Echezarreta

EZ BERTARATUTAKOAK:

IDAZKARIA:

Idoia Arévalo Benito.

BATZARRA: Ez-Ohikoa

DEIALDIA: Lehenengoa

HASIERA ORDUA: Arratsaldeko seiak hogeita bost gutxi.

HAMAIERA ORDUA: Arratsaldeko seiak hogeit gutxi.

LANGILERIA

1.- Mutiloa-Zerain-Zalduondo idazkaritza- elkartearen Estatutuen onarpena.

Gaia joan zen batzorde informatzailean azaldu zitzaien udal-kideei

Gaitasun nazionalako Toki Administrazioaren funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen 128/2018 Errege Dekretuaren 8. artikulua xedatutakoaren arabera, Mutiloa, Zerain eta Zalduondoko udalek, idazkari-kontuhartzaile lanpostua egikaritu ahal izateko elkarte baten eraketa eskaera egiten dute, lanpostu bakar bat izanik eta honek dakarren zama ekonomikoa elkarteko erakundeen artean banatuz.

Prozedura guzti honen helburu bakarra, hiruentzako idazkari-kontuhartzailletza lanpostu bat izatea litzateke, lanpostu bera arautzen duen araudiak xedatzen dituen araubide, eskubide eta obligazioekin.

Hori dela eta, elkarte berria arautuko duten Estatutuak ekartzen dira Batzar honetara, aztertu eta hala badagokio, onartuak izan daitezten.

Gaia aski eztabaidatu ondoren, udal-kideek honako erabaki hauek hartzen dituzte, ahobatez:

LEHENENGO: Mutiloa, Zerain eta Zaldondo udal elkarte berriaren Estatutuak onartzea, Idazkaritza lanpostua amankomunean eratzeko helburuarekin.

BIGARRENA: Eusko Jaurlaritzari erabaki honen berri ematea, dagokion erabakia hartu dezan.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko seiak hogeit gutxi direnean.